2018ko ABENDUAREN 20an UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO OSOKO BILKURAREN AKTA 12 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2018ko abenduaren 20an, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko osoko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozua Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Naiara Carvajal Larrañaga and. Aitor Korta Etxabe jn. Gloria Vazquez Herranz and.
I**dazkaria**	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, **batzarburu** jaunak adierazi du bilkura apartekoa dela eta horren arrazoia dela, hain zuzen ere, 2019rako Ordenantza Fiskalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko presa edukita, ezin dela itxoin hurrengo ohiko bilkura egiteko egunera arte.

Ondoren, eguneko aztergai bakarra aztertu eta eztabaidatu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

Bakarra.- 2019. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK. HASIERAKO ONESPENA

2018C2100002 espedientea

Lehenik eta behin, EH BILDU udal taldearen izenean, **Eizagirre** jaunak azaldu du aurkeztutako alegazioa kendu egin dutela.

Segidan, alegazioa kentzearen ondorioz egokitutako akordio-proposamena irakurri du i**dazkari** andreak.

Udal taldeek beren iritzia eman ostean, eta batzarburuak horrela aginduta, proposamenaren puntuak banan-banan bozkatu dituzte. Hauxe izan da emaitza:

1.- Errentetako teknikariaren proposamena

Aldeko botoak:	18	(aho batez)

2.- 2019rako Ordenantza Fiskalak behin betiko onartzea

Botoak alde	11	(10 EAJ-PNV, 1 PSE-EE)
Kontrako botoak:	7	(5 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak	–	

Horrenbestez, bozketa bakoitzean jasotako emaitzarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

"2018ko urriaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea ORDENANTZA FISKAL batzuen eranskinen aldaketari (udal zerga eta prezio publikoak), 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartzeko.

Espedientea jendaurrean egon den epean, EH BILDU udal taldeak alegazio-idazki bat aurkeztu du.

Hala ere, gaur bertan alegazioa kendu du.

Bestalde, Errentetako teknikariak proposatu du hasierako onespenaren testuetan aurkitutako akats batzuk zuzentzea.

Horiek horrela, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, hurrenez hurren, lehenbiziko puntua aho batez eta bigarrena botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Errentetako teknikariak aurkeztutako proposamena onartzea.

Bigarrena.- Behin betiko onartzea indarrean dauden ORDENANTZA FISKALetan egindako aldaketak, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartzeko.

Hirugarrena.- Ordenantza Fiskalen aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzekoak, 16.4 artikuluan agintzen duena betetzeko, guztien jakinerako eta aipatutako aginduan aurreikusten diren gainontzeko ondorioetarako."

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, iluntzeko zazpi eta erdietan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.